

## Whatever Dance Toolbox / INGURUAN

Mugimenduari zuzendutako elkarrekintzarako baliabideen tailerra

Zuzendari: Nikolina Pristaš (Badco.)

2013ko ekainaren 7, 8, 9

Dantzagunea /Arteleku

AZALaren lankidetzarekin



**Nikolina Pristaš (Badco)** zuzenduko duen tailerrak dantza-materiala sortzeko edota koreografiari buruz pentsatzeko orduan egiten diren hurbilketetan dauden ezberdintasun espezifikoak hartuko ditu aztergai, elkarrengileak diren inguruetan lan egitearen ondorioz lortzen ditugun ezagutza eta esperientzia motekin lotuta beti ere. Gai hori **Whatever Dance Toolbox** lantresnaren bidez landuko da tailerrean, eta ezberdintasun horien adibideak emango dira Badco.ren berezko jardueraren ikuspegitik, baita parte hartzaileen lanaren ikuspegitik ere.

**Whatever Dance Toolbox** izeneko lantresna Badco. kolektiboaren eta Daniel Turing software ingeniari eta artista alemanaren arteko elkarlan luzearen emaitza da, eta dantzariaren eta ordenagailuaren arteko elkarrekintzaren eta horrekin lotutako pentsamendu koreografikoaren gainean biek dituzten kezketako batzuen erakusle da. Hainbat software lantresna biltzen ditu, dantzaren eta mugimenduaren azterketarako eta garapenerako diseinatutakoak. Erraza da erabiltzen, teknikoki ekipo simple batekin, eta irudien analisia ematen du denbora errealean, kasu askotan "ispilu elkarrengile" gisa funtzionatuz. "Ispilu elkarrengile" horrek bideo-irudia denbora errealean eta kamera aurrean egindako mugimenduak eraldatzeko hainbat aukera eskaintzen ditu. Ondorioz, proiektatzen den irudiarekin batera aritzeko aukera anitzak ekartzen ditu, eta dantzariari zein

koreografoei baliagarri egiten zaie, zein mugimendu eta harreman-modu aukeratu eta horiek aztertu, findu eta aberasteko orduan.


(BIO)

Dantza Garaikideko "Ana Maletić" Eskolan graduatu ondoren, **Nikolina Pristaš** Zagreb-eko Dantza Konpainian sartu eta harekin ibili zen bost urtez jarraian. Literatura Konparatua eta Hizkuntza eta Ingeles Literaturako Departamentuan diplomatu zen, Zagreb-eko Unibertsitatean. Badco. kolektiboa sortu zuen, 2000. urtean, Goran Sergej Pristaš, Devlahović Pravdan eta Sajko Ivanarekin batera. Badco-k egin dituen honako koreografia lan hauen egile da: "2", "Solo Me", "Fleshdance", "Changes" eta "Semi-interpretations or How to Explain Contemporary Dance to an Undead Hare". Haren aurreneko piezak, "2" , lehen saria jaso zuen Julidas-eko (Amsterdam) festibalean, 2003an. Campo-n (Gante, Belgica) egonaldia egin zuen artista modura, 2005ean, baita Tanzquartier Wien-en ere (Viena, Austria), 2007an.

**Badco.** kolektibo bat da, eta Zagreb hirian du bere egoitza. Kolektibo horretan koreografia, dramaturgia eta filosofiarekiko kezkak biltzen dira, eta, egun, partaideak honako hauek dira: Pravdan Devlahović, Ivković Ivana, Kreitmeyer Ana, Tomislav Medak, Goran Sergej Pristaš, Pristaš Nikolina, Rumiha Lovro eta Užbinec Zrinka. 2000. urtean sortu zenetik, antzerki- eta dantza-performancea landu ditu, baina ez konponbideak emateko, arazoak sortzeko jarduera bezala baizik -jokatzeko, antzetzeko eta ikusle izateko ezarrita dauden formak zalantzan jarrita. Badco.-k, ezegonkorra den komunikazio-truke gisa lantzen du jarduera eszenikoa, konplexua den iruditegi gisa, eta erronka egiten dio ikusleari komunikabideek homogeneo bihurtu duten errealitatek hareago begiratu eta, horrela, ikusle bezala bere askatasuna berreskuratzen dezan.



(Nikolina Pristaš)



(imagen de la herramienta *Whatever Dance Toolbox*)



(imagen de taller sobre *Whatever Dance Toolbox*)

**Datak eta ordutegia:**

Ostirala 7: 16.00 tik -20.30 ra

Larunbata 8: 10.00 tik - 14.00 ra eta 15.00 tik-18.00 ra

Igandea 9: 10.00 tik- 14.30 ra

**Non:**

Arteleku, Kristobaldegi, 14  
20014 Donostia

**Prezioa:**

40 €

**Izena emateko:**

dantzagunea@gipuzkoa.net